


JON GOTZON ETXEARRIA



Λόγος δυνάστης μέγας ἐστίν

(Gorgias, "Helena", 8-9)

15

εἰς τὴν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

JON GOTZON ETXEBARRIA

MARTZIALEN

ZIRI-BERTSOAK

(bigarren argitalpena gehituta)

εις τήν ἐλευθερίαν

τῆς πατρίδος

liburu-sorta

GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua: BI-995-92.

LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBO

MARTZIAL OLERKARIA

Jesukristo-ren ondoko 40. urte inguruan jaio zen, epailaren batean, (Epig. X,24; IX,52,3), Bilbilis ize-neko urian, gaurko Calatayud inguruan. 64. urtean (Neron-ek eragindako uriaren kiskaltze-garaian) Erromaratu zen, ospe eta diru bila, nonbait. 98. an, berriz, sorterrira bihurtu zen. Uri nagusian lortutako laguntasuna amaitu zitzaion eta, Plinio Gazteak emandako diruz egin ahal izan zuen herrirako ostera hau. Hain zuzen ere, egin zion gorralpen baten alderako, Plinio-k, behar zuen dirua eskuratu zion. Behin sorterrian, Martzela andre aberatsari eskerrak, azkenengo urteak patxadaz emateko aukera izan zuen. Zelako bizimodua zeraman Martzial-ek Erroman? Ez behar gorrian bizi nahi ez ba zuen, nondik edo handik, zelan edo halan, sos apur batzu zuzendu behar. Eta beharrianak behartuta, hasi zen orduko agintari eta handikiei buruz bertso ederrak sarritan koipetsuak asmatzen. Hor-tik zetorkion laguntzari eskerrak gosea berdindu eta bizikera hobea-

gotu ahal izan zuen.Irabazi behar-
rrak askotan asmamena zorroztu e-
giten dio.Batetik bestera,bazter
guztiak arakatuz,orduako gizartea,
gorabeherak eta gizonen egokera
sakonki ikasten ditu.Ereti ona,zi-
nez,gero bere ziri-bertsoetan as-
kotariko giza-izakera eta egokerak
guri ezagutuerazteko.Hori dela eta
olerkaria ez ezik,gizarte-ikertza-
ile eta erakusle ere bai bilakatu-
ko zaigu,gaurko gizon jakingaleen-
tzako.

Eta zer dira izatez ziri-bertsoak?
Gure egunetan,eleder moeta bere-
zia.Izenak berak adierazten duenez
ziri handik,ziri hemendik,norbait
edo zerbaiten alderdi barregarri,
ezezgarri edo begiragarria azal-
tzen digun neurtitza.Horixe esan
nahi du argi eta garbi gure euskal
hitzak.Alabaina,Greko,Erromatar e-
ta euron kimak diren erdara guzti-
en epigrammak,gaurko egunetan hori
berori esan gura duen arren,hasie-
ran beste esangura bat zedukan.Hau
da:Epi-gramma,gainean idatzitakoa.
Grezian lehenengotan,izen edo egi-
pen baten gomuta hilobi eta oroi-
tarrietan iraunerazoteko olerkari-
ak erabiltzen zuen neurtitz-era

bat.Idatzi ahala,olerki batzu luze
samarrak,beste batzu laburrak ger-
tatzen ziren.Lehenengoei eresiak

zeritzaten;bigarrenengoei epigramak.
Luzaro barik askotariko sentipenak
eta bihozkadak agertzeko berebizi-
koak zirela eta,hasi ziren orduko
olerkariak arlo berriak lantzen.
Hilobi eta oroitarrietan gabe,esku
erakutsien txarteletan, eguneroko
goraberetazko bertsoetan eta lagun
arteko bizitzazko idazkietan,epi-
gramez baliatu ohi ziren.Barruko
sentipenak eta,zehatz eta bizi a-
zaltzeko bide egokia,benetan.Azke-
nik,egiteko berezia bilakatu zen
epigramagintza.Horixe da gaurko e-
gunean dadukan esangura berezia.
Biotariko epigrametan aritua da
gure idazlea.Eta bide berri hortan
gidari ez arren,Martzial,bai nagu-
si.Bestean,lehenen nahiz bigarren
aintzagarri eta goragarri beti.
Martzial oso irakurria izan da gi-
zaldietan zehar.Erderetara itzulia
ere bai.Eta antzeratua,zer esanik
ez.Ondorengo idazleengan eragin
handia izan du.Erasmo-k,Voltairte-
k,Quevedo-k eta beste askok epi-
grama,ziri-bertso ,politik idatzi

dituzte.Euskaldunen artean ez omen da horrelakorik egin(betiko leloa) Baina,helburu legez,epigrama berarizkorik egin ez ba litz ere,bestelako bertsoetan,bide batez,bai asmatu direla ziri-bertso ederrak! Esaterako,gure bertsolariek elkar zirikatuz,lagunurkoa jorratuz,mundu-ko gorabeherak arrotuz eta batbateko euren ateraldiez,ziri-bertso itzelak boteak dira askotan.Aukeran daduzka irakurleak bertso-paper idatzietan,begi zoliz arakatzuz gero.Har dezagun honako hau,Bilintx-ek asmatu eta adar-jotzailaren aurka jaurtirikoa:

Mando baten gañean
Domingo Kanpaña;
Ez dijoa utsikan
mando horren gaña.
Azpian dijoana
mandoa da,baña
gañekoa ere bada
azpikoa aña:
Mando baten gañean
bestea,alajaña!

Matzial-ek jorratutako badaezpada-ko herritarrak eta bertsolari mihi zorrotzak astindutako gizon harrotxoak leku baten hazka,zaparrada-

ren ondoan.

Gureak hain landuak eta borobilduak ez,gehienetan.Bertsolariak askotan ez bait du astirik hartzen oldoztu eta paperera,hausnartu eta neurtu eta gero,aldatzeko.Behar bada,herritar kutsuz zakarrago eta arloteago ere izango dira.Baina bizitasunez,gatzez eta lotsarrengo aiko-maikorik ezaz,askotan klasiko batenak baizen jator eta sarkorrek direla norik ukatu?

1896. urtean,Eusebio M.Azkuetarren "Parnasorako Bidea"-n hamasei ziri-bertso polit argitaratu ziren Handik hartu dizut izena.1947 eta 1948. urteetan Lontzi Abak bere ipuintxoak eman zizkigun.Ipuinak,alegiak,hizkirimiriak eta ziri-bertso ugariak dakartzate bere liburutxo biek.Otxandio-ko Arrese-k Ipuinak izeneko sailean ziri-bertso politak ematen dizkigu.Serafin Baroja-k ere nahikoa idatzi zuen era hortan.

Egia,Martzial-ek aukeratu zuen oleriti-era bigarren mailakoa da.Halere,berarizko tankera eman zion gure olerkariak.

Bere berea zuen izakera itsasten daki bere olerkietan. Berak oinarritu zuen epigrama gure egunetaraino dakarren esannahian.

Lur-azalean agertzen den guzti guztia olerki-gai bihurtzen da Martzial-en idazkörtzan. Inor mindu gabe, gero: "parcere personik, dicere de vittis" (Epig. X, 33, 10) akatsak azaldu, pertsonak estaldu. Horra bere jokabidea. Mingarri ez diren bertsoetan, bai, agertu ohi ditu egiazko izenak. Bestela, gezurrezko izen batez, honelako edo harelako giza moeta margoztu ohi du. Ez da zirto-lari hutsa. Barre egin, eragin eta giza-barruan sakontzen ondo daki. "Hominem pagina nostra sapit" (Epig. X, 4, 10). Gure idazkiei giza usaina darie. Labur, mamintsu, zehatz, sakon,

jator, gozo, bihoztun, zorrotz eta alai dagerkigu. Edozein gertaera nahiz egokera epigrama-gai da Martzial argiarentzat. Hiruzpalau ikutu, gatz apur bat eta oreka harrotzen hasten deneko, eztenkada zorrotza. Hor ziri-bertsoa, barrez eta barre-guraz uzten gaituena, hurrengo irakurtzeko gogoz, irakurritakoa ahantzi gabe. Bizkor eta bizi dabil

jazoerarik jazoera, irribarretsu eta maltzur. Gordin samarra ei da. Ez hainbeste. 1172 olerki, 9.000 bertso hamabi liburutan argitara eman zituen. Hainbeste neurritz idatzi eta 150 bat inguru dira zantartzat jotzakegunak. Gainera, hainbeste gatziz idatzi eta txarrerako baino barre egiteko gogoari gehiago sortu ohi du, milikiegi ez den irakurlearengan. "Lasciva est nobis pagina, vita proba" (Epig. I, 4)

Lagunei bertsoak atera, eskaini eta polito polito bertso-mordoska eder-rra osotzen zuen. Orduantxe batu eta gutun batetan zabaldu. Ospe handia irabazi zuen eta, berehalako batean zabaltzen ziren haren idazkiak batzer guztietara. Irakurle ugariak eta txalo zaleak bazituen nonnahi. Martzial jakitun zegoen eta bere irakurleen on-eritzian babesturik, lasaiago jasaten zituen etsaien esamesak eta barru gaizto-koen berba mingarriak.

Dena dela, gizon eta olerkari handia zen. Gure egunetaraino hedatu da haren ospea eta harenganako zaletasuna. Hil zenean, Plinio Gazteak hauxe idatzi zuen beragatik: "Gizon argia zen, sakon eta zorrotza, bere

idazkietan gatzeta eta behaztuna,ba-
kuntasunez nahasten zekiena"(Epist
III,21)Batzueta goratua,beste ba-
tzueta zapuztua,bizimodua ondo
aitzen ikasi zuen.Erdiko mailan i-
pini zen:"Nec volo quod cruciat
nec volo quod satiat"(Epig.I,57)Ez
dut nahi larri ez ase nazakeenik.
"Sit nox cum somno,sit sine lite
dies"(II,90)"Nulli te facias nimis
sodalem:gaudebis minus et minus
dolebis"(XII,34)Horatius-en urrez-
ko erdi-maila hartu bide du helbu-
rutzat eta Seneka-ren eroapena bi-
de-laguntzat.Horatius-ek bezain ze-
hatz eta Seneka-k bezain sakon e-
saten ez badaki ere.

Horra zure eskuetan Martzial han-
diaren ziri-bertso batzu.Ez onenak
ez jakingarrienak:euskaratzeko e-
rrazenak.Ahal baduzu,jo liburutegi
handietara eta iruntsi Martzialta-
sun eta Martzialkeria gzutiak.Ez
zaizu damutuKo eta arrazoia emango
diozu idatzi eta igarri zuenagatik
:"Toto legor orbe frequens et di-
citur","Hic est","Quodque cinis
paucis,hoc mihi vita dedit"(V,13).
Olerkari handi guztiek izen han-
diaren garramura nabaritu dute bu-

ru-bihotzetan eta buru-eritzi sa-
marrak izan dira.Zuzenbidezko han-
dinahia.Horatius-ek "non omnis mo-
riar",ziurtasunez eta harrokeriaz;
Martzial-ek "Sum pauper sed non
obscurus..."ziurtasun eta arpegi-
handiz;Orixe-k bere burua apalta-
sunez izkutatu eta:"Geroak esan
beza/erri bat izan zan/edo-ta ats
emaiozun/ontan irauñ dezan".

Bego bakean eta aiputan gure an-
tzinako auzokoa eta berak inori o-
paturikoa gerta bekio,eskatu zuen-
ez:"non aliter cineres mando iace-
re meos"(I,88)

Eta gure bertsolari-aurkezleak e-
saten duenez,orain Martzial-i pun-
tua:

Euskeratzaileak

Lambere securi dextram consueta magistri
 tigris, ab Hyrcano gloria rara iugo,
 saeva ferum rabido laceravit dente leonem:
 res nova, non ullis cognita temporibus.
 ausa est tale nihil, silvis dum vixit in altis:
 postquam inter nos est, plus feritatis habet.

Tigre hezia lehoia ikusi eta berriro
 amorratu egin zena.

Jabe lasaiaren eskuina mizkatzen
 ohitu tigreak, Hyrkania-ko omen,

herraz haginka, anker, lehoi bortitzari.

Inoiz ikusi ez den gauzaren berri!

Baso garaietan zela ausartu ez;

gure arteratuz gehitu da ankerrez.

Hic est quem legis ille, quem requiris,
 toto notus in orbe Martialis
 argutis epigrammaton libellis:
 cui, lector studiose, quod dedisti
 viventi decus atque sentienti,
 rari post cineres habent poetae.

Irakurtuten ari zarean
 ta lera andiz bila dozuna,
 Martzial da,ludi guztian ziri-
 bertso zorrotzak erazaguna.

Irakurle om,bizi-jakitun
 dalarik emon dautsozun aintza,
 oso olerkari gitxik izaten
 dabe,etorrita ere eriotza.

Sunt bona, sunt quaedam mediocria, sunt mala plura
quae legis hic: aliter non fit, Avite, liber.

Onak,erdizkakoak eta beste asko txar
dozuz.Bestela,Abito,ezin gutunik irar.

Si memini, fuerant tibi quattuor, Aelia, dentes:
 expulit una duos tussis et una duos.
 iam segura potes totis tussire diebus:
 nil istic quod agat tertia tussis habet.

Lau hagin,uste dut,zenituen,
 Aelia;eztul batez
 bi eta beste batez beste bi
 erori zaizkizu;honez
 gero ziurki eztul eikezu
 egun guztietan:deus ez
 dago hemendik eramateko
 eztulak hirugarrenez.

Qualem, Flacce, velim quaeris nolimve puellam?
nolo nimis facilem difficilemque nimis.
illud quod medium est atque inter utrumque probamus:
nec volo quod cruciat nec volo quod satiat.

Nolako neska ez,nolakoa
bai nahi dudanentz,Flako?
Ez errazegi,ez zailegia
dena ere ez dut gogoko.
Bien arteko dena,muturren
artean egokitzako:
larritasunik ez dut nahi,ez
asetzerik niretzako.

Amissum non flet cum sola est Gellia patrem,
 si quis adest iussae prosiliunt lacrimae.
 non luget quisquis laudari, Gellia, quaerit,
 ille dolet vere qui sine teste dolet.

Geli-kbakarrik dagoanean,
 aita galdu daualako
 ez dau negarrik egiten. Inor
 aurrean ager orduko,
 berariz negar egiten daki.

Gora-naiez egindako
 negarra alper da. Lekuko barik
 egina, bai, egiazko.

Nuper erat medicus, nunc est vispillo Diaulus:
quod vispillo facit, fecerat et medicus.

Diaulo osagilea zan,oin ilobigin.

Sendagin zala ta orain dagi bardin.

Bella es, novimus, et puella, verum est,
et dives, quis enim potest negare?
sed cum te nimium, Fabulla, laudas,
nec dives neque bella nec puella es.

Ederra zara bai,neskatila,
eta,nork uka?,aberatsa.
Baina,Fabula,larregi zure
buruaz mintza ta mintza
ez aberatsa zara orduan,
ez ederra,ez neskatxa.

Cum tua non edas, carpis mea carmina, Laeli.
carpere vel noli nostra vel ede tua.

Zure bertsoak agertu ez ta
nireakaitik gaizki esaka
zabiltz, Lelio. Ager zureak
edo ez jardun nireen aurka.

Quaedam me cupit,—invidē, Procille!—
 loto candidior puella cycno,
 argento, nive, lilio, ligustro:
 sed quādam volo nocte nigriorem,
 formica, pice, graculo, cicada.
 Iam suspendia saeva cogitabas:
 si novi bene te, Procille, vives,

Neska bat, Prozilo bekaiztia, kisne
 zuri, zilar, elur, lili, xuandor-hautsa
 baino zuriago, nire irrikaz dabil.
 Nik, aldiz, beste bat gurago dut, beltza,
 bike, inurri, bele, gau, txitxar-aldean
 are beltzagoa; urkamendi latza
 darabilzu hausnar, Prozilo; zu ongi
 ezagun bazaitut, gozatu bizitza!

Vnguentum, fateor, bonum dedisti
 convivis here, sed nihil scidisti.
 Res salsa est bene olere et esurire.
 qui non cenat et ungitur, Fabulle,
 hic vere mihi mortuus videtur.

Ukendu gozo,halajaina,atzo
 afaltiarrei emana!,
 baina mahaira deus ez atera.
 Ederra kontua,atxona
 eta gosea!Afaldu gabe
 igurtzia ohi dena,
 Fabulo hori,horixe baietz
 bada hildakoarena!

Versiculos in me narratur scribere Cinna.
Non scribit, cuius carmina nemo legit.

Zinna-k bertsoak atara omen
daustaz. Inork ez leidu ta idazten?

Quid recitaturus circumdas vellera collo?
conveniunt nostris auribus ista magis.

Zergaitik biltzen dozu lepoa
zapi orreikaz,danen aurrean
irakurtzeko orduan?Obe
zapiok gure belarrietan.

Hanc tibi, Fronto pater, genetrix Flaccilla, puellam
 oscula commendo deliciasque meas,
 parvola ne nigras horrescat Erotion umbras
 oraue Tartarei prodigiosa canis.
 inpletura fuit sextae modo frigora brumae,
 vixisset totidem ni minus illa dies.
 inter tam veteres ludat lasciva patronos
 et nomen blaeso garriat ore meum.
 mollia non rigidus caespes tegat ossa nec illi,
 terra, gravis fueris : non fuit illa tibi.

Fronto aita,ama Flakila,neska
 hau,ene musu gozoa
 dakarkizuet oparigaitzat.
 Ez bitza laino gaiztoa,
 ezta Tartaro-ko txakurraren
 harrigarrizko ahoa
 ere ikus Erotion-ek;
 txikia da neskatoa.
 Seigarren negu hotza ikusteko
 zen;egun hura ondikotz!
 Antxinakoak lagun,poz bedi
 jolasez,zazozko ahoz
 nire izena zizaka beza.
 Estal bitez belar gozoz
 haren hezurrak.Bera zuretzat
 lege,z, lurra,leun zakioz!

Numquam se cenasse domi Philo iurat, et hoc est:
non cenat, quotiens nemo vocavit eum.

Philo-k dinosku
ez daula inoiz
bere etxean
apaldu;egiz:
Sekulan ez dau
jan aparirik,
inork berera
ots egin ezik.

Rustica mercatus multis sum praedia nummis:
 mutua des centum, Caeciliane, rogo.
 nil mihi respondes? Tacitum te dicere credo
 'Non reddes': ideo, Caeciliane, rogo.

Lur-arlo batzu erosi ditut
 diru askoren ordainez.
 Zeziliano, mailega, arren,
 dirua. Erantzunik ez?
 Berbarik gabe esaten zaude:
 "Atzera bihurtu ezetz!"
 Horrexegatik, Zeziliano,
 eskatzen dizut, mesedez.

Hoc iacet in tumulo raptus puerilibus annis
 Pantagathus, domini cura dolorque sui,
 vix tangente vagos ferro resecare capillos
 doctus et hirsutas excoluisse genas.
 sis licet, ut debes, tellus, placata levisque,
 artificis levior non potes esse manu.

Ilobi onetan Pantagato datza,
 oraindikan ume zala alde egina.
 Bere ugazabaren ardura mingotsa.
 Auxe izaten zan bere zeregina:

Motots ugaria Ari ebatea,
 artazi-orratzak ozta ozta alkar
 ikutuaz eta mosu lastuxea
 txukun ipintea,moztuagaz bizar.

Oi lur,olan izan bear dozun arren,
 bigun eta gozo arentzat bazara
 be,ezelan bere ez zara izanen,
 gure ederzalea bestean samurra

Lotus nobiscum est, hilaris cenavit, et idem
 inventus mane est mortuus Andragoras.
 Tam subitae mortis causam, Faustine, requiris?
 In somnis medicum viderat Hermocraten.

Bainua hartu gurekin,pozik
 jan zuen afaritxoa
 eta goizean hilik arkitu
 Andragoras gizajoa.
 Faustin,zein ote hain bat-bateko
 heriotzaren zioa?
 IKusi zuen eta,ametsetan,
 Hermokrate galenoa!

Laudat, amat, cantat nostros mea Roma libellos,
 meque sinus omnes, me manus omnis habet.
 Ecce rubet quidam, pallet, stupet, oscitat, odit.
 hoc volo: nunc nobis carmina nostra placent.

Erroman danak nire idazkiak
 goratu,maite ta abesten dabez.
 Esku ta sakel guzti guztiak
 or narabile,urian,maitez.

Urlia gorri,zuri ta arrri
 eginik ei da;ta arrauzi egin
 gorrotoarren.Auxe pozgarri!
 Orain neurtitzak ditut atsegin.

Nescio tam multis quid scribas, Fauste, puellis :
hoc scio, quod scribit nulla puella tibi.

Ez dakit zergatik
idazten dautsezun
ainbeste neskati
gaztei, Pausto kutun.

Obeki esanda,
badakit zergatik:
batek ere ez dautsu
idatzi oraindik.

Vxorem quare locupletem ducere nolim
 quaeritis? Vxori nubere nolo meae.
 inferior matrona suo sit, Prisce, marito:
 non aliter fiunt femina virque pares.

Zergatik ez dudan nahi andra
 aberatsarekin
 ezkondu, diostazue? Ez dut nahi
 loturik
 nire emazteari; andra beti, Prisko,
 senarra
 baino beheratxoago; honela izan
 ezik
 ezin senar-emazteak geratu beredin-
 durik.

Oplomachus nunc es, fueras ophthalmicus ante.
fecisti medicus quod facis oplomachus.

Orain gudari arma astunez,

begi-sendalari lehen.

Soldautzan eta sendalaritzan

berdin dakizu egiten.

Omnis aut vetulas habes amicas
 aut turpis vetulisque foediores.
 has ducis comites trahisque tecum
 per convivia, porticus, theatra.
 sic formosa, Fabulla, sic puella es.

Zure lagunak denak zaharrak
 edo zatar ta motzago
 zaharrak eurak baino.Zurekin
 hara ta ahona,lagungo
 gisa,eroan ohi dituzu,
 jatera,aterpe,teatro
 denetan zehar.Fabula hola
 da ederra ta neskato!

Omnia promittis cum tota nocte bibisti;
mane nihil praestas. Pollio, mane bibe.

Gau guztia edan eta
edan igaro ondoren
aho betean dakizu
aginduak egiten.

Biharamonean, berriz,
ez duzú agindurik
betetzen. Pollio, ari
zaitetz edaten goizetik!

Triginta mihi quattuorque messes
 tecum, si memini, fuere, Iuli.
 quarum dulcia mixta sunt amaris
 sed iucunda tamen fuere plura;
 et si calculus omnis huc et illuc
 diversus bicolorque digeratur,
 vincet candida turba nigriorem.
 Si vitare velis acerba quaedam
 et tristis animi cavere morsus,
 nulli te facias nimis sodalem:
 gaudebis minus et minus dolebis.

 horrelako ohitura zuten:egun poza
 bazen harritxo zuriz;eta eguntxarra
 bazen harritxo beltzez markatzea,

Bai,Juli,halaxe da,bai,honez gero
 elkarrekin hogei ta hamalau uztaro.

Gozoak.miongotsak,denetarikoak;
 atseginak,baina,ugariagoak.

Harritxoak alde banatan bi margo:

zuriak beltzei bai irabazi askoz.

Nahigabe batzu urrundu gura,bai,
 ta gogo ilunaren horzkadak itzuri?

Ez izan inoren aizkide mamaina:
 gitxiago pozak,gitxiago mina!

Aegrotas uno decies aut saepius anno,
 nec tibi sed nobis hoc, Polycharme, nocet:
 nam quotiens surgis, soteria poscis amicos.
 Sit pudor: aegrota iam, Polycharme, semel.

soteria(salbazioa):arriskuren batetik
 irtendaako adiskideei egiten zitzaiz-
 kien opariak.

Urtean hamar aldiz gaixo ohi
 zara edo maizago;ez
 zure,bai aldiz,gure kaltetan,
 Polikarme;osasunez
 omdo arkituz gero,lagunen
 soteria galdeginez
 zatoz.Lotsa apur bat.Polikarme:
 betiraako gaixo zaitez!